

IKASTETXEETAN EGINDAKO APLIKAZIOAREN ONDORIOZKO OHARRAK.

ESKAILERA.

D EREDUA, 4. MAILA: NARRAZIOA.

Testuak 334 hitz ditu.

LAGINA: 5 ikastetxe, 6 ikasgela, 108 ikasle.

Testua: Ipuina da. Ez du zailtasun berezirik izan aplikazioan. Hamaika galdera egin ziren, horietatik 4k berariazko informazioa bilatzea zuten helburu; 2k, testua bere osotasunean ulertzea; 2k, interpretazio bat garatzea; eta 3k, testuaren edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa egitea.

Emaitza: Batez besteko puntuazioa **8,63** izan zen.

Galdera bakoitzean erantzun egokia eman zuten ikasleen ehunekoa:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11	G12
95,83	91,37	93,13	90,00	79,46	88,66	84,63	92,84	78,42	62,79	86,36	(*)

Ondorioak:

Aplikazioa egin ondoren, probak 12 galdera izan behar zituela erabaki zen.

Galdera horiek hurrengo trebetasun hauei dagozkie:

1T (informazioa bilatzea)	G2, G3, G4, G7
2T (testua bere osotasunean ulertzea)	G5, G8
3T (interpretazio bat garatzea)	G1, G6
4T (edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa)	G9, G10, G11, G12

Puntuatu nahi izanez gero, galdera bakoitzaren balorazioa honakoa izatea proposatu zen:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11	G12
1	0,5	0,5	1,5	1	1	0,5	1	1	0,5	0,5	1

Gutxienezko puntuazioa: **6**

Puntuazio horretatik behera irakurriaren ulermena ez da ontzat joko.

Aztertu egin beharko da zein galderatan egiten duen hutsa eta zein trebetasun diren landu behar direnak.

(*) galdera berria da eta ez zen aplikazioan testatu.